

**“IRATZAR FUNDAZIOA”
Fundazioaren Patronatuari**

**2021 URTEKO AUDITORE INDEPENDENTE
BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN
AUDITORETZA-TXOSTENA**

Protokolo Zenbakia: 29/23

Donostia, 2023ko uztailaren 21a



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA

«IRATZAR FUNDAZIOA» Fundazioaren Patronatuari,

Salbuespen Iritzia

“IRATZAR FUNDAZIOA”ren (Fundazioa), urteko kontuak auditatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2021eko abenduaren 31ko balantzeak, eta aimatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion emaitzen kontuak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, “Salbuespen-iritziaren Oinarria” paragrafoan deskribatutako egitatearen eraginak salbu, erantsitako urteko kontuek, 2021eko abenduaren 31n Fundazioaren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi Fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2 oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta -arauekin.

Salbuespen iritziaren oinarria

2018ko ekitaldian, Fundazioak 387.000,00 euroko balioko higiezin bat jaso zuen erakunde baten dohaintza bidez. Balio hori *Aktibo ez-korrontearen* «Ibilgetu immateriala» epigrafean kontabilizatu zen, eta kontrapartida gisa, *Ondare Garbiaren* «Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak» epigrafean. Ibilgetuari dagokionez, lursailen eta eraikinen balioa bereizi zen, eta 137.007,90 euro eta 249.992,10 euro kuantifikatu ziren, hurrenez hurren. Balioaren banaketa egiteko, higiezinak dohaintzaren egunean zer katastro-balio zuen hartu zen erreferentzia gisa: 137.007,90 euro lursailaren kasuan eta 36.479,54 euro eraikinen kasuan. Horrela, Fundazioak katastro-balioaren pareko balioa esleitu zion lursailari, eta elementuaren balio osora arteko aldea eraikuntza gisa islatu zen. Gure ustez, katastro-balio erreferentzia egokia da banakapena egiteko, baina elementu bakoitzak (lurzorua eta eraikina) katastro-balio globalarekiko zuen proportzioaren arabera egin behar zen. Horrenbestez, lursailen 168.616,86 euroko kontabilitate-gutxiespena gertatu da, eta zenbateko bereko gehiegizko balorazioa eraikinen kasuan. Eraikuntzen gehiegizko balorazio horren ondorioz, 5.058,51 euroko soberakina gertatu da urtero egiten den amortizazioan (7.499,76 euroko amortizazio-gastua erregistratu da, baina zenbateko zuzena 2.441,25 eurokoa izango litzateke). Hori dela-eta, 2021eko ekitaldiko emaitzan 2.441,26 euroko gutxiespena gertatu da, ez baita islatu diru-laguntzaren emaitzei egotzitakoa (2020ko ekitaldian ez zuen eraginik izan emaitzan). «Ibilgetu materialei» eta ondare garbiari dagokionez, 18.036,12 euroko gutxiespena izan zuten 2021eko abenduaren 31n (12.977,62 euro 2020ko abenduaren 31n). 2020ko ekitaldiko kontuei buruzko gure auditoretza-iritzian albuespen bat jaso zen gai berari dagokionez.

Fundazioak Euskal Autonomia Elkarteak Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea eta xedapen gehigarriak bete behar ditu, baita Kontabilitate Plan Orokorra 1491/2011 Errege Dekretuaren bidez onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako egokitze arauak eta urteko kontuei dagokienez indarrean dauden gainerako xedapenak ere. Dena den, Fundazioaren kontabilitate-erregistroak eta erantsitako urteko kontuen memorian jasotako informazioa Kontabilitate Plan Orokorrean (aurrerantzean, KPO) jasotzen den merkataritza-araudiak eskatutakoak dira funtsean. Zentzu horretan, adierazi behar da, urteko kontuek arau-esparru aplikagarria berariaz ez adierazi arren, egoera-orri finantzarioak «normalizat» identifikatzen direla, erakundeak bere urteko kontuak formatu laburtuan aurkeztu ahal izateko mugak betetzen baditu ere.

Hautemandako informazio-gabeziekin lotutako gorabehera nagusiak azaltzeko helburuarekin, 1491/2011 Errege Dekretuak aurreikusitako gutxieneko edukia izango da kontuan (1491/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, irabazi-asmorik gabeko erakundeak Kontabilitate Plan Orokorriari egokitze arauak eta irabazi-asmorik gabeko erakundearen jardura-planaren eredu onartzen dituen), IRATZAR FUNDAZIOAK horiek aplikatu ahal izateko inguruabarrak biltzen baititu.



Honako hauek dira erantsitako urteko kontuetan identifikatutako gorabehera nagusiak:

- Balantzeak eta Emaizen Kontuak adierazten dute zenbatekoak 2020ko eta 2019ko ekitaldietakoak direla, baina 2021eko eta 2020ko ekitaldietakoak dira, hurrenez hurren.
- **Emaizen kontua**, 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoa:
 - Formatuari dagokionez, ez ditu barne hartzen ondare garbian gaineratutako partidek izandako mugimenduak; dena den, horrek ez du eraginik ekitaldiko emaitzan.
 - Fundatzaileak egindako ekarpenak, 470.000,00 eurokoak izan direnak 2021ean «Fundazioaren jardunari berari dagozkion sarrerak» epigrafean jasotzen dira, «Afiliatuen kuotak» azpiapartatuan («Sustapenen, babestuen eta laguntzaileen diru-sarrerak» atalean 2020an, 460.000,00 euroan). Diru-sarrera horien izaera kontuan hartuta, «Ekitaldiaren emaitzei egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak» azpiapartatuan jaso beharko lirateke.
 - Gainera, jasotako zerbitzuengatik gastu guztiak «Kanpoko zerbitzuak» apartatuan jasotzen dira, «Ustiapenagatik bestelako gastuak» epigrafean, baina, gastu horien izaera kontuan hartuta, horietako batzuk Emaizen Kontuko «Hornidurak» apartatuan jaso beharko lirateke, ezin baita zehaztu kontzeptu horri dagokion zenbatekoa.
- 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion **memoriak** ez du barne hartzen nahitaezko informazio hau:
 - Ekitaldiko soberakinaren kontabilitate-aplikaziorako proposamena.
 - «Onuren gaineko zergari» aplikatutako balorazio-arauak, ezta «Sarrerak eta gastuak» epigrafeari (zehazki «Ustiapenerako dirulaguntzei») aplikatutakoak ere.
 - Irabazien gaineko zergari dagokionez Fundazioari aplikagarria zaion araubidea aipatzea, eta zerga-oinarri gisa sartu diren diru-sarrerak eta emaitzei buruzko informazioa.
 - «Sarrerak eta gastuak» epigrafeari buruzko oharra.
 - «Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak» epigrafeari dagokion oharra. Hala ere, urteko kontuen memoriaren 3.9.oharrean, ekitaldian zehar jasotako ustiapen-dirulaguntzei buruzko informazioa jasotzen da (konparatzeko informaziorik gabe). Ez da informaziorik ematen «Kapitaleko dirulaguntza, dohaintza eta legatuei» buruz.
 - «Alderdi loturadunak dituzten eragiketei» buruzko oharra; hala ere, fundatzaileak ekarpenak egin ditu (470.000,00 euro) eta horiek urteko kontuen memoriaren 3.9.oharrean identifikatu dira.
 - «Erakundearen jardura eta ondareko elementuak xede propioetan ezartzea, eta administrazio-gastuak» epigrafeari buruzko oharra, ezta Fundazioaren ondasunei dagokien inbentarioarena ere. Hala ere, erakundeak urteko kontuko eranskin gisa aurkeztu du informazio hori, Fundazioen Erregistroan gordetzean.



Bestalde, akatsak identifikatu dira honako gai hauei buruz emandako informazioan:

- 1. oharra adierazten du 2020ko ekitaldiari dagokiola, 2021 beharrean.
- Laugarren oharra, «Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezinak inbertsioak», ekitaldian zehar izan den ibilgetu materialaren kostu- eta amortizazio-partiden mugimenduak zehazten ditu, eta bertan zenbakizko akatsak eta banakapen-akatsak daude.
- Batez besteko plantilla ez da banakatzen kategorien eta desgaitasuna duten langileen artean, eta ez da ekitaldi amaierako plantillari buruzko informaziorik erantsi sexuen arabera sailkatuta.

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontuauditoretzaren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko Kontuen Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna* atalean zehazten da.

Fundazioarengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen auditoretza jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu urteko kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzailaren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, salbuespen iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen auditoretza hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

“Salbuespen iritzia oinarria” atalean azalduko gaiak gain, zehaztu dugu ez dagoela gure txostenean jakinarazi beharreko auditoriako beste arrisku garrantzitsuegarik.

Bestelako informazioa

Bestelako informazioetan sartzen da Fundazioak garatutako jardueren buruzko informazioa eta ondare-elementuak helburu propioetarako aplikatzeari buruzko informazioa, baita administrazio-gastuei buruzkoa eta 2021eko ekitaldiko ondasunen inbentarioari buruzkoa ere; izan ere, horiek egitea eta prestatzea Patronatuko lehendakariaren erantzukizuna dira, hurrenez hurren, eta ez dira sartzen urteko kontuetan.

Urteko kontuei buruz dugun auditoretza-iritziak ez du gainerako informazioa barne hartzen. Kontu-auditoretzaren jardura arautzen duen araudiak eskatutakoarekin bat etorritik, gure erantzukizuna da urteko kontuekin bat datorrela ebaluatzea eta horren berri ematea, betiere aipatutako kontuen auditoretza egitean lortutako erakundeari buruzko informazioa oinarritzat hartuta eta ebidentzia gisa lortutakoaz bestelako informaziorik sartu gabe. Egindako lanean oinarrituta, zuzendu ezin daitezkeen akats materialak daudela ondorioztatzen badugu, horren berri ematera behartuta gaude.

Egindako lan horretan oinarrituz, eta aurreko apartatuan deskribatutakoa kontuan hartuta, egiaztatu da ondasunen inbentarioan higiezin sartu dela, lursailaren balioa (137.007,90 euro) kontuan hartu gabe; era berean, egiaztatu dugu kudeaketa-gastu gisa gehitutako soldaten 28.443,88 euroko zenbatekoa ez dela zuzena, 15.345,93 eurokoa izan beharko zuelarik.



Urteko kontuen inguruan, Patronatuko lehendakariaren erantzukizuna.

Patronatuko lehendakariaren erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Fundazioaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, Fundazioari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz, memoriaren 2. oharrean adierazten dena. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, Patronatuko lehendakariaren erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Fundazioak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da Patronatuak Fundazioa likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistatik ez dagoenean.

Urteko kontuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna.

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudia jarraituz egindako auditoretzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materializat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren arautegia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzeko eta aplikatzeko ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barnekontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Patronatuko lehendakariak emandako informazioa ere.
- Patronatuko lehendakariak funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duen ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Fundazioak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Fundazioak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.



- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Fundazioaren Patronatuarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

Fundazioaren Patronatuari jakinarazi zaizkion arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen auditoretzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.



AGEM CONSULTORES Y AUDITORES, S.L.
(ROAC-S2107)

Kontu-Ikuskari Bazkidea: Asier Ilzarbe Vergara
(ROAC-18516)

34105502K ASIER ILZARBE (R: B75054643)

Donostia, 2023ko uztailaren 21a



AGEM CONSULTORES Y
AUDITORES, S.L.

2023 Núm. 03/23/02627

SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional